



www.begiko.com

© Testua: 1996, AGURTZANE ORTIZ DE LANDALUZE

© Irudiak: 2018, LEIRE SALABERRIA

© Argitalpen hau:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-01-8

Lege-gordailua: M-16272-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagon

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Leireren opor miresgarriak

Agurtzane Ortiz de Landaluze

Irudiak: Leire Salaberria

begiko

Jonentzat

Bidaia prestatzen

Poz-pozik nengoen goiz hartan. Inork deitu gabe jaiki nintzen ohetik. Goizeko zortzietarako dutxatuta, hortzak garbituta eta orraztuta nengoen.

7

Oso arropa erosoia jantzi nuen, txandala eta zapatila batzuk, eta armairutik arropa ateratzen hasi nintzen.

Dena ondo tolestu behar nuen motxilan sartzeko. Ez zitzaidan batere lan erraza iruditu. Lehen aldiz prestatuko nuen motxila neuk bakarrik, inoren laguntzarik gabe. Arazo batzuk izan nituen, baina umore onean nenbilen.

Doinu alai bat kantatzen hasi nintzen.

Nire neba, Jokin, alboko logelan zegoen eta gauza bera egiten ari zen. Jokin ez zegoen oso pozik. Haserretzen hasita zegoen.

8 Egia esateko, Jokin oso txikia da, zortzi urte ditu bakarrik eta ia ez daki ezer ondo egiten. Nik, ordea, hamar urte ditut dagoneko eta bera baino askoz hobea naiz.

—Kokoteraino nago, nik ezin dut hau ondo egin! —hasi zen protestaka Jokin.

—Motxila hau txikiegia da hainbeste arropa sartzeko... —segitu zuen esaten nebak.

—Sartu ahal duzuna. Joango naiz gero zuri laguntzera —esan zion aitak gurasoen logelatik.

—Eta zu, Leire, zer moduz zabilta? —galdetu zidan aitak.

—Oso ondo, primeran, ondo moldatuko naiz, egon lasai —erantzun nion.

Aita eta ama ere han zebiltzan buru-bela-
rri gauzak ondo jartzen.

—Linterna eta mapa sartu al dituzu?
—galdetu zion amak aitari.

—Oraindik ez, baina ez kezkatu, ez zaiz-
kit ahaztuko —erantzun zion aitak.

—Gogoratu azken bidaian anorakak
ahaztu zitzaizkigula eta gero hotz handia
pasatu genuela —esan zion amak.

—Oraingoan zerrenda bat egin dut eta
dena zehatz-mehatz apuntatu dut. Bidaia
hau zoragarria izatea nahi dut —gaineratu
zuen aitak pozez gainezka.

Ikusi duzuenez, bidaia bati ekiteko prest
gaude. Bidaia hau telebistako lehiaketa ba-
tean irabazi genuen. Euskal mitologiari
buruzko lehiaketa batera aurkeztu ginen
eta irabaztea lortu genuen. Gurasoek, ne-
bak, osaba-izebek eta lehengusina batek
parte hartu genuen.

Primeran pasatu genuen lehiaketan. Laminei, sorginei, prakagorriei, basajaunei eta horrelako pertsonaiei buruzko ipuin asko irakurri genuen. Egia esateko, asko dibertitu ginen eta, gainera, irabazleak izan ginen. Hori bai ez genuela espero. Telebistan, jende guztiaren aurrean saltoka eta oihuka hasi ginen. Hurrengo egunean, famatuak ginen auzoan.

Saria ez zen txantxetako: bidaia bat Euskal Herrian zehar. Gogor eztabaidatu genuen tokiak aukeratzeko orduan.

—Nik ez dut mendira joan nahi —hasi zen beti bezala Jokin.

—Ba, orduan, nik ez dut kostaldera joan nahi. Leloa halakoa! —esan nion nik, haserretzen hasita.

—Ni leloa izango naiz, baina zu marimandona bat. Beti egin behar dugu zuk nahi duzuna... —segitu zuen Jokinek. Bera ere haserre zegoen.

—Tira, umeok, ez hasi beti bezala, aurkituko ditugu denon gustuko tokiak —tarteetan jarri zen azkenean ama.

Eta halaxe, azkenean denok konforme gelditu ginen planarekin. Hasieran konforme, gero pozik eta, denbora pasatu ahala, ilusioz gainezka geundela ere esan dezakegu. Pozen ni neu eta Malen lehengusina geunden.

11

Bidaia burutzeko, Aste Santuetako oporrrak aukeratu genituen, horrela ez genuen eskola-egunik galduko.

Urte hartan apirilean ziren Aste Santuak. Ordurako, egunak luzatzen hasita zeuden eta eguraldia ere nahiko epela zen.

Gainera, ilargi betea zegoen eta gauren batean giro magikoa lortuko genuela pentsatu nuen. Suaren inguruan elkartu eta kantuan eta gertaera barregarriak eta bel-durgarriak kontatzen arituko ginela uste nuen.

Nire ustez, itxura ezin hobea zuen bidaia hark eta ez zegoen denbora galtzerik.

—Ia-ia dena sartu dut —esan nuen, pentsamenduak alde batera utzita.

12 —Nik ez dakit non sartu mendiko botak. Ez daukat lekurik. Ama, aita, zer egingo dut? Hau gehiegi da niretzat —hasi zen kexati Jokin, nire neba.

—Ondo dago, oraintxe goaz laguntzera —esan zuten gurasoek batera.

—Neuk lagunduko dizut. Ume txikiak baino txarragoa zara. Eskuak eduki behar-rean, palak dituzula ematen du. Ez dakizu ezer ganoraz egiten —bota nuen nik.

Baina Jokinek gelako atea itxi eta ez zidan sartzten utzi.

Ama Jokini laguntzera joan zen. Bitartean, aitak eta biok bidaiako gauza guztiak egongelan pilatu genituen eta egun horretako planari buruz hitz egiten hasi ginen.

—Azkenean, Legaireko zelaietara joatea erabaki genuen, ezta? —galdetu nion aitari.

—Bai, gogoratzen al zara non zegoen? —galderarekin erantzun zidan.

—Ez oso ondo, aita. Badakit Araban dagoela eta Agurainetik pasatu behar dugula, baina horixe da gogoratzen dudana guztia —erantzun nion, pentsakor jarrita.

13

—Oso zuzen zabilta, Leire. Gogoratzen bazara, Legaireko zelaiak oso altu daude, mendikate batean. Bertatik, Arabako Lautada oso-osorik ikusten da. Ea asmatzen duzun zein mendikate den.

—Ea, ba, itxaron pixka batean, pentsatu behar dut. Ah, bai, badakit, Urbasa da —asmatu nuen azkenean eta irribarre egin nuen poz-pezik.

—Oso ondo, Leire. Ez duzu batere buru txarra —esan zidan aitak ere pozik.

Egia esateko, oso harro zegoen nirekin. Bere antza neukala uste zuen, eta horrelaxe esaten zion jende guztiari.

—Orain bai, gogoratzen naiz. Iaz udako oporretan Urbasatik ibili ginen, baina ez ginen iritsi Legairera, eguraldi kaskarra egin zigulako —segitu nuen nik esaten.

—Ikusiko duzu zein ederra den garai honetan! Nire ustez, udaberria zoragarria izaten da paraje horietan —esan zidan aitak.

—Jo, aita, zertan ari ote dira ama eta Jokin? Ea azkar amaitzen duten, irteteko gogoia daukat eta —urduri jartzen hasi nintzen.

—Zaude lasai, Leire, ez zaitez hain ipurterrea izan eta eseri berriro. Banoa amari eta Jokini laguntzera, horrela lehenago amaituko dugu —esan ondoren, aita egongelatik irten zen.

Bitartean, ni, han aulkian eserita, gero eta urduriago nengoen. Neba hori ez da oso tre-

bea, pentsatu nuen. Beti dago arazoak sortzen. Ea espabilatzen den apurtxo bat. Bartzuetan, gure familiakoa ere ez dela pentsatzen dut. Amatzok ospitalean eduki zuenean, konfundituta beste umetxo bat emango zioten beharbada, alboko emakumearen umea edo. Agian, nire benetako neba beste batzuek izango dute. Horrelakoak ari nintzen pentsatzen, baina bat-batean damutu egin nintzen: zergatik naiz hain gaiztoa Jokinekin? Aitari eta amari jaramon egin behar diet. Saiatuko naiz berarekin hobeto portatzen eta pazientzia handiagoa edukitzen. Hala ere, ez dakit, ba, lortuko dudan. Hain da leloa!

15

Neure pentsamenduetan murgilduta nengoen. Askotan egoten nintzen horrela. Oso ameslaria nintzen, gainera. Izugarritzko istorioak asmatzen nituen. Zerbait etortzen zitzaidan burura eta, gero, ideia guztiak lotzen nituen bata bestearen atzetik.

—Eh, Leire, esnatu, prest gaude! —oihu egin zidan neba maiteak.

—Bazen garaia! Baina ez al zaigu ezer ahaztu? —galdetu nien.

—Ene, bada, egia da eta. Osaba-izebei eta lehengusinari deitzea ahaztu zaigu
16 —gogoratu zen berahala Jokin.

—Oraintxe bertan deituko diegu eta gosalteko geldituko gara —esan zuen aitak eta telefonoa zegoen tokira abiatu zen.

—Egun on, Mikel, zer moduz denok? —galdetu zion aitak bere anaiari.

—Primeran, zuen zain gaude, dena prest daukagu. Tripazorriak eginda dauzkagu dagoeneko —erantzun zuen osaba Mikelek telefonoaren beste aldetik.

—Tira, tira, ez da hainbesterako izango! Orduan, bederatziak laurden gutxiagotan «Goizargi» kafetegian, ezta? —esan zuen aitak.

—Bai, bai, atzo gelditu ginen bezala. Hantxe elkartuko gara eta boiloak eta kruasanak nire kontu, ados? —proposatu zuen osaba Mikelek.

—Bai, ados, gero arte —erantzun zion aitak eta telefonoa eskegi zuen.

Urduritasuna eta alaitasuna nahastu ziren gure egongelan. Azkar mugitu ginen denok. Amak igogailuko botoiari sakatu zion, eta guk sarreran pilatu genituen gauza guztiak.

Ama bat-batean etxeko gasaren, argiaren eta uraren pasoak itxi behar zirela gogoratu zen. Gurasoak berriro sartu ziren etxera eta horrek kanpora irteteko gogoia handitu zingun.